

Sobre la entrevista al coordinador de la socialdemocracia vasca

JON IURREBASO ATUTXA :: 01/07/2019

¿Qué podemos decir de quienes no plantean las contradicciones principales que enfrentan a España y Francia contra Euskal Herria?

[Euskara]

Euskal sozialdemokraziaren koordinatzaileak eskaintako elkarriketaren harira

Zer esan dezakegu, Euskal Herriaren aurka Espainiak eta Frantziak darabilten konfrontazioari buruzko kontraesan nagusirik planteatzen ez dutenez? Zergatik, garrantzi handiko aukera mediatiko horren aurrean, ez da planteatzen Euskal Herriaren nazio eta gizarte arazoa? Zergatik ez da argi eta garbi planteatzen Herri Langilea bere etorkizunaren jabe bakarra denik?

Galdera iraingarri mordo bat Euskal Herria bizirauteko, bederen, ahalegindu direnentzat azken hamarkadetan, beraz, zeozer esan edo aldarrikatzeko tenorean gaude. Argi utzi nahi dugu ETA ez dela erakunde terrorista izan, euskal herri langilearen zerbitzurako abangoardia politiko eta militarra baizik, bere ibilbidearen zatirik gehienean behintzat.

Ildo horretan, Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa lortzea izan zen ETAREN jardun politiko eta militarren ardatz nagusia, gure okupatzaileek eta esplotatzaileek kontu horren ukazioa egiten badute ere, horretara, ETA nahiz helburu berberen alde borrokatu dutenak terroristatzat jotzea da haien azalpen nagusia.

Nabari da, 60 urteotan, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduan izan garenok, X inplikazio mailarekin eta esku hartzeko dinamika desberdinetan, ETAREN helburu berberen aldeko borrokan eta defentsan jardun dugula. Hori ukatzea historiari eta gure buruari uko egitea da.

Era berean, nabari da, guzti horren ukazioa publikoki egiten dutenak gezurretan ari direla edo, neurri batean zein bestean, gure okupatzaileen eta esplotatzaileen eremura pasatu direla. Denborak esango du non kokatzen diren sare zabal horretan.

Espainian ezagututako garairik okerrenetako batean (krisialdiz krisialdi azken urteotan), euskal sozialdemokraziak sistema okupatzaile eta esplotatzailearen bidelagun zintzo eta bermatzaile gisa jokatu du Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu osoa desagiteraino, borroka politiko-militarra barne dagoela. Izan ere, horrelako borroka mota da sistema okupatzaileek onartu ezin duten kontraesan bakarra, frantses eta espainiar estatuak eta kapitala zalantzan jartzen baititu. Nabari da, halaber, espainiar edo frantses sistemaren norian bueltaka ibiltzeko besterik ez duela balio.

Interes antagonikoak izanez gero, ezin daiteke aurkariarekin zurikerietan ibili, nahiz eta konfrontaziorako bitarteko kaskarragoak eduki, are gutxiago, ezin dakioke aurkariari zirt

edo zart eutsi, bera baita, hain zuzen, gure iragana, oraina eta geroa ukatzen dituen.

Asko izan dira azken 60 urteotako borrokan eroritako euskal herritarrak. Alabaina, euskal erresistente-militantea min sortzaile denaren kontzeptua ontzat hartzen dute Ezker Abertzale Ofizial eta sozialdemokratako kide ugari, gehiagorik eta gutxiagorik gabe. Herri eta klasearen aldeko borroka eta erresistentzia inoiz gertatu behar ez zuela sinestarazi nahi digute, eta hori dena okupatzailearen ideia nagusien onarpenarekin.

Alegia, erresistente izatea terroristaren sinonimoa da. indarkeria iraultzaile berdin terrorismo. Bakeak, dibertsitateak, interklasismoak... uko egiten diote klase borrokari. Ezer ez da posible okupatu eta esplotatzen gaituen demokrazia kapitalistaren parametroetatik kanpo.

ETA kondenatzea eskatzen zaion unean hurrengo erantzun hau jasan behar diogu Otegiri: “ETA kondenatzea baino zerbait garrantzitsuagoa egin dugu, haren behin betiko desagitean lagundu baitugu”. Gauzak hala, galdera bat egiten diogu gure buruari: baldin eta gure okupatzaileen legeriapean euskal etorkizun aske eta sozialista ikusteko modurik ez badago (Espainiak eta Frantziak halaxe diote uneoro), zergatik desegin da euskal erresistentzia eta zergatik utzi dira gure preso politikoak usteltzen okupatzaileen kartzeletan, Euskal Herriaren nazio eta gizarte askapenerako gehien eman dutenak izanik?

Haiek diote (ez da bakarrik bozeramailearen edo koordinatzailearen kontu bat) sentitzen dutela eragindako minagatik, are gehiago, adierazpenen bategatik logikoa den min hori biziagotu egin badute... Zera diogu berriro ere: Euskal Herria da lehenengo biktima eta ez Espainia edo Frantzia maila pertsonalean ezta kolektiboan ere. Bi herrialde kapitalista eta inperialista horiek barkamena eskatzeaz gain, historian zehar bortxaz egindako ekintzak, okupazioa, torturak eta sufrimendua direla kausa, ordaina eman behar digute.

Hona beste erantzun kezagarri bat (EAJren mezua eta hizkera erabiliz): “ez blokeorik (PSOE-GAL), ezta txeke zuririk ere”. Halako erantzuna emanda, imitatu nahian dabilen baina berandu iristen den EAJren ikaslea ikusten dugu. Beste askok baino gehiago entregatu beharko diozue sistemari, zuek baino lehenago bertan uztartu baziren ere.

Hein batean, Otegiri egindako elkarrizketa zoro horretan indar handiko guneak daude. Alde batetik, GALen Felipe Gonzalez mafiosoak izandako lidergoa eta babesa aitortzeko nahia adierazten du, baina ez epaitzeko asmotan, bizikidetza demokratikoari begira baizik. Kontrajartze gisa: badirudi euskal preso politikoak existitzen ez direla, eta estrategiaren aldaketa eta ETArek errendizioa zirela medio, dena “lau” egunetan konponduko zelaren kontua.

Beste aldetik, berak dio balitekeela biktimengan mina eragin izatea, baina soilik bozeramaile gisa, ez baitziren erakunde politiko-militarreko kide kalitate horretan. Horren aurrean, esan beharra dago Erakundeak nahi gabeko akatsen aitorpena egin duela bere bizitzan zehar, hortaz, ez dauka inork horren ardura hartu beharrik, are gutxiago, barkamena eskatzea egin ez duen zerbaitengatik.

Ez da kontu berria biktimen aipamena egitea, hori baita Frantzia eta Espainiari interesatzen zaie ihesbidea arazoren muinera iritsi ez egiteko. Izugarria da Otegiri egindako galdera

guztietan gatazkaren arrazoien inguruan ezer aipatu ez izana. Euskal Herria da agresioa jasaten duen lehena, eta bere etorkizun nazional eta soziala garatzeko gauza ez den bitartean, okupatzaile edo esplotatzailearen kontrako gerran egongo da.

[Castellano]

Sobre la entrevista al coordinador de la socialdemocracia vasca

¿Qué podemos decir de quienes no plantean las contradicciones principales que enfrentan a España y Francia contra Euskal Herria? ¿Por qué no se plantea la cuestión nacional y social de Euskal Herria ante una oportunidad mediática tan importante? ¿Por qué no plantear abiertamente que el Pueblo Trabajador es el único dueño de su destino?

Ante tanta pregunta insultante hacia los que, cuando menos, han hecho sobrevivir a Euskal Herria durante las últimas decenas de años, algo tendremos que afirmar y reivindicar. Queremos dejar bien claro que ETA no ha sido una organización terrorista sino una vanguardia político militar al servicio del pueblo trabajador vasco, al menos en gran parte de su recorrido.

En ese sentido, ETA tuvo como eje fundamental de su accionar político militar, conseguir la independencia y el socialismo para Euskal Herria. Esta cuestión es negada por los que nos ocupan y explotan. No tienen más explicación plausible que calificar a ETA como terrorista, así como a todo/a que haya luchado por los objetivos que la misma persigue.

Es evidente que los que nos hemos situado en el MLNV durante 60 años con X grado de implicación, en sus diferentes dinámicas de intervención, hemos luchado y defendido los mismos objetivos que ETA. Negar eso es negar la historia y a nosotros mismos.

Quienes públicamente reniegan de todo esto es evidente que mienten o se han pasado en una u otra medida precisamente al lado de los que nos oprimen y explotan. El tiempo dirá qué lugar ocupan en ese vasto entramado.

La socialdemocracia vasca, en uno de los peores tiempos que ha conocido España (con varias crisis en los últimos años), se ha comportado como una fiel acompañante y garante del sistema que nos ocupa y explota. Hasta el punto de desmontar todo el MLNV, incluida la única contradicción que los sistemas que nos ocupan no pueden permitir, esto es, la lucha político militar en tanto que cuestiona a los Estados, francés, español y al capital. Es evidente que con ella no podemos contar sino para dar vueltas a la noria sistémica, sea esta españolista o francesa.

Nadie que tenga intereses antagónicos, incluso siendo inferior en todos los medios para enfrentarse a su oponente, puede tomar actitudes serviles y aún menos para apuntalar de manera decisiva a su oponente que, precisamente, le niega su pasado, presente y futuro.

En los últimos 60 años han caído en la lucha muchas vascas y vascos. Miembros de la Izquierda Abertzale Oficial y socialdemócrata dan por buenos conceptos que sitúan al resistente/militante vasco como generador de dolor, sin más y sin menos. Pretenden hacernos creer que la lucha y resistencia como pueblo y como clase nunca debiera haber

pasado. Todo ello dentro de la aceptación de las ideas-fuerza de quien nos ocupa.

Esto es, resistente es sinónimo de terrorista. Violencia revolucionaria igual a terrorismo. Paz, diversidad, Inter clasismo... negadores de la lucha de clases. Nada es posible fuera de los parámetros de la democracia del capital que nos ocupa y explota...

Tenemos que soportar oír lo siguiente ante una petición de condena a ETA: “nosotros hemos hecho más que condenar a ETA pues hemos colaborado para su definitiva disolución” (Otegi). Así las cosas, nos hacemos una pregunta: Si bajo las leyes de los que nos ocupan es imposible vislumbrar un futuro libre y socialista vasco (España y Francia lo dicen cada minuto de su vida) ¿por qué se ha desmontado la resistencia vasca y se les deja pudrir en las cárceles de los ocupantes a nuestras presas y presos políticos que son quienes más han dado por la liberación nacional y social de Euskal Herria?

Dicen (pues no es cuestión de un portavoz o coordinador) que sienten el daño causado y más si, además del lógico daño, lo han aumentado por alguna declaración... Volvemos a decir que la primera víctima es Euskal Herria y no personal ni colectivamente España o Francia. Estos dos países capitalistas, e imperialistas nos tienen que pedir perdón y resarcirnos por todas las violaciones, ocupación, torturas y sufrimiento que nos han hecho padecer a lo largo de nuestra historia.

Otra respuesta preocupante (pues el mensaje y el lenguaje es del PNV) “no bloqueo (al PSOE-GAL), no cheques en blanco”. Ante esa respuesta vemos al alumno del PNV que pretende imitar, pero llega tarde. Vais a tener que entregar al sistema más de lo que entregaron otros muchos que se acoplaron al mismo antes que vosotros.

En cierto sentido, la locura de la entrevista tiene puntos muy fuertes. Uno es cuando Otegi dice que lo que se pretende es que el mafioso Felipe Gonzalez reconozca su liderazgo y patrocinio de los GAL pero no para enjuiciarlo sino cara a la convivencia democrática. En contraposición parece que los presos políticos vascos no existen. Y eso que con el cambio de estrategia y la rendición de ETA todo se iba a solucionar en “cuatro” días.

También dice que han podido generar dolor en las víctimas, pero solo como portavoces pues en esa calidad no eran miembros de la organización político militar. Ante esto, hay que decir que la Organización ha reconocido los errores no pretendidos a lo largo de su existencia. No hace falta que nadie se haga cargo de ello. Y menos se disculpe por algo que no ha hecho.

No es nuevo que se hable de víctimas pues ese subterfugio le interesa a Francia y a España para no llegar al meollo de la cuestión. Lo que es terrible es que Otegi se deje entrevistar, pregunta tras pregunta sin hablar de las causas del conflicto. La primera agredida es Euskal Herria y hasta que ésta no pueda desarrollar su futuro nacional y social, Euskal Herria estará en guerra contra quien la ocupe o explote.

<https://eh.lahaine.org/sobre-la-entrevista-al-coordinador>